


A T Z O K O
Andoain

7. zbk.

1999ko uztailaren 25a.

eta andoaindarrak
eta
ando
ainda
rrak

Erlijioa (eta 2)



AITAREN, SEMEAREN...

Erlijioari buruzko bigarren atalarekin gatoz hilabete honetan. Aurrekoan dena ezin sartu, eta garai batean sakramentuak nola izaten ziren azaltzera mugatu behar izan genuen kontakizuna. Erljio bizitzak orain 50-60 urte zuen garrantziaz jabetzeko, baina, hona hemen jarraipena.

Mezari buruzkoak kontaktzen hasiko gara, bada. Mezetara ezin izaten zen huts egin garai hartan; garrantzi erlijioso handia zuen eta hura zen, gainera, asteko hitzordu sozialik garrantzitsuena. Hori bai, aukeran baziren makina bat: Hasi goizaldetik eta goiz erdiraino, orduero; bezperak; adorazioa; lehenengo ostiralak... kasik pasatzen zuten bizitza elizan!

Eta mezetan ez bazen ba konfesionarioan bekatuak aitortzen. Garai hartan "kasik dena" baitzen bekatu. Beldurrean bizi ziren eta etengabe bekatua egiten ari ziren sinesmen osoz jarduten zutela esan digute gure koadrilakoek. Infernua zer zen ez zien inork ondo azaldu, baina hara ez zuen inork joan nahi, eta 'porsiakaso', astean behin behintzat konfesatzera!

Nolanahi ere, beldurra eta kontu ezkorrez gain, orduan ere elizak gauza aberasgarriak ere eskaintzen zituela azpimarratu dute mahaiaren bueltan eserita-koek, mugimendu apostolikoak horren lekuko.

Horiek denak eta askoz ere gehiago bildu ditugu ondorengo lerroetan.

MEZA

Meza aukeran izaten zen, goizean goizetik hasita. 'Adoracion nocturna' egokitzen zenean goizeko lauretan hasten zen lehenengoa -gizonak bakarrik joaten ziren nonbait-; gero seiretan, eta hurrenak zazpiretan eta zortziretan. Bederatzietan umeentzako meza eta, azkenik, hamarretan meza nagusia.

Bezperako gauerditik baraurik zirela joan behar izaten zuten herritarrek mezetara. "Bai, eta gero batzuren batzuk mareatuta bukatzen zuten, debilidadez", zehaztu du Miren Zarragak.

Arazoi horrek bultzatuta, hain zuzen ere, ez zen komuniorik ematen meza nagusian. "Hara: meza nagusia ematen zuten hiru apaizek eta haietako bakar bat egoten zen baraurik.

Beste biek seiretako eta zazpiketako meza eman eta etxera joaten ziren gosaltzera, eta bueltan etortzen ziren, tripa beteta diakono eta subdiakono lanak egitera", esan du Joxemari Olazabalek.

Mikela Ansak jakinarazi duenez, meza guztiak ordubetekoak izaten ziren eta denak latinez. Hizkuntza hura inork ulertzen ez zuenez, meza misalarekin jarraitzen zen. "Emakume

guztiak joaten ginen misalarekin", esan du Mikela Ansak. Hala ere, han zer esaten zen inork gutxi ulertuko zuen, seguraski, eta apaizek interes handia izaten zuten sermoia behintzat ondo uler zedin. Hori dela eta, erreto-liko euskaraz edo erdaraz botatzen zuten pulpitorik, argi gera zedin guztia. Gerraz geroztik, hori bai, euskarazko agerpide guztiak desagertu ziren elizan ere.



Joxemari Olazabal

"Hara: meza nagusia ematen zuten hiru apaizek eta haietako bakar bat egoten zen baraurik.

Beste biek seiretako eta zazpiketako meza eman eta etxera joaten ziren gosaltzera".



Emakumeek elizara eramaten zuten misala.

SERMOIAK



**Maria
Esther
Arrieta**

"Don Constantinok hainbeste hitz egiten zuen, hainbeste hitz egiten zuen, askotan deskuidatu eta hanka sartzen zuela".

Eta sermoiak nolakoak izaten ziren? Bazen denetarik, apaizaren arabera. Maria Esther Arrietak gogoratu duenez, esate baterako, "Don Constantinok hainbeste hitz egiten zuen, hainbeste hitz egiten zuen, askotan deskuidatu eta hanka sartzen zuela. 'En vez de los reyes magos, los reyes godos'; 'sentémonos' beharrean 'sesenta monos'..."

"Don Constantino oso sermoilari txarra zen", Miren Zarragaren arabera. "Gure lagun batek hara zer esaten zuen: 'a pesar de Don Constantino sigo croyendo en Dios', gaineratu du

Loren Navarrok haren fama txarra gogora ekarrita.

"Baina sermoilari onak ere izaten ziren e...", zehaztu du Miguel Amasek. "Frantziskanoak eta etorri ikaragarria zuten kanpoko apaizak-eta..."

Mahaiaren bueltan biltzen ditugun solaskideek apaiz zerrenda luzea gogoratzen dute: Don Joaquin

Bermejo, Dorronsoro, Don Nicolas Apaolaza, Inocencio Munita, Dionisio Berrondo, Don Constantino...

"Neretzako apaizik onena izan da Don Luis Ezenarro. Oso gizon ona zen; hark ekarri zidan neri komunioko jantzia", esan du Miren Zarragak. "Harek kategoria zuen, bai", zehaztu dio Joxepak.



Apaiz taldea Leizaran gaineko zubietariko bat bedeinkatzen haren inaugurazio ekitaldian.

ESKOLATIK MEZETARA

Eskoletatik, zenbait eskoletatik behintzat, iladan jarrita etortzen ziren ikasleak mezetara. "Gogoratzen naiz 'las Hijas de Jesus' nola etortzen ziren eta edukitzen zituzten aulkiak beraientzat gordeta. Gu, herriko eskolakoak ginenez, atzean zutik konformatu behar!", esan du Miren Zarragak.

Loren Navarro Villa Argentinan ibili zen zenbait urtez eta tarte hartan igandero etortzen ziren eskolatik mezetara denak filan jarrita. "Elizako aurrekaldean, ezkerrean, genituen gordeak gure aulkiak", esan du. "La Sallekoek ere gordeta edukitzen genituen aulkiak. Gureak izaten ziren erdiko filak, eta alboetakoak, lekurik bazegoen, nazionalitatekoentzat", zehaztu du Miguel Amasek.

Prozesioan ere Villa Argentina eta La Salleko ikasleak joaten ziren lehenengo, eta atzean herriko eskoletakoak. Ohitura horrek urte luzez iraun zuen. Guztiz diskriminatzailea zela

sinestuta, baina, "egun batean Carlos Ruiz herriko eskolako maisuak protesta egin zuen denentzat berdintasuna



Mojetako ikasleak elizatik Berrozpera bueltan.



**Miren
Zarraga**

"Gogoratzen naiz 'las Hijas de Jesus' nola etortzen ziren eta edukitzen zituzten aulkiak beraientzat gordeta. Gu, herriko eskolakoak ginenez, atzean zutik konformatu behar!"

eskaten eta orduan bukatu zen ohitura hori", Miguelek jakinarazi duenez.

Miguel Amas eta Lasallen ibili ziren gainontzeko mutiko guztiak Meza hasi baino hiru ordu laurden lehenago-edo jartzen ziren Lasalleko patioan formatuta, bakoitzak aurrekoarekiko beso bateko luzerako tartea gordeta. "Hala joaten ginen gero filan elizara. Hura zen 'disciplina marcial'. Meza bukatuta, berriz ere patriora

itzuli behar izaten genuen 'rompan filas' egitera", esan du Miguelek.

"Gogoratzen naiz", jarraitu du kontakizunean, "nola behin txirringulari karrera bat zegon eta Gurutz Ganzarainek korritzen zuten. Joxe Arratibel hor etorri zen esanez 'Ganzarain datorrela aurrean Langarika eta horiekin!'. Meza bukatuta zegoen artean. 'Hermano! que viene Ganzarain escapado, que le queremos ver!' hor hasi ginen eskean. Ba,



Miguel Amas

"Hura zen 'disciplina marcial'. Meza bukatuta, berriz ere patio-
ra itzuli behar izaten genuen 'rompan filas' egitera".

patoraino joan behar izan genuen bueltan. 'Rompan filas' egiteko txis-

tua jo zuenean, 'mekauen', hura abia-
durarekin joan ginen. Eta ikusi
genuen!"

Ume asko, herriko guztiak, joaten ziren mezara eta, beraz, irakasleak ordena jartzen ibili behar izaten zuten. Maria Esther Arrietak ondo gogoratzen ditu Dolores maistrak elizan ematen zituen kaskarrekoak. "Aguazilak ere kanka!, buruan makina bat kaskarreko eman ditu elizan ixilik egoteko", gaineratu du Joxe Sakristauak.

PROZESIOAK



Joxe Eizmendi


"Nik ikusiak ditut iganderoko prozesioak. Meza nagusiaren aurretik ateratzen zen apaiza aurretik zela, monagiloak atzetik, zirial eta guzti, eta ate batetik bestera joaten ziren arkupetatik pasatuz".

"Eta gogoratzen zerate zein prozesio egiten zen meza hasi aurretik?", galdetu du Joxe Sakristauak. "Nik ikusiak ditut iganderoko prozesioak. Meza nagusiaren aurretik ateratzen zen apaiza aurrean zela, monagiloak atzetik, zirial eta guzti, eta ate batetik bestera joaten ziren arkupetatik pasatuz". Gero, nonbait, asteroko ohitura hori galdu egin zen, eta egun berezietarako soilik antolatzen zen meza aurreko segizio hori, egun berezietarako eta hileko hirugarren igandetarako. "Hirugarren igandea zenean", esan du Joxemari Olazabalek, "ateratzen zen Jauna bajo palio, eta ematen zitzaion harekin elizari buelta".

"Eta copus egunean?!", jarraitu du Lorenek, "Corpus egunean plazan egiten zen prozesioa eta bertan, frontoiko paretean, jartzen zuten aldarea. Oso egun polita izaten zen, udalbatza osoa joaten zen, eta prozesioan lore hostoak botatzen ziren...". "Bai, xestoka lore botatzen ziren, prozesioak pasa behar zuen

bide guztiak egon behar baitzuen lorez estalita", gaineratu du Maria Esther Arrietak. "Hasi elizan, orain Labetxiki dagoen horretatik buelta eman eta handik Elixondonera; hala ematen zuten prozesioak buelta meza nagusia hasi aurretik", jakinarazi du Joxemari Olazabalek.

Horiez gain, jakina, urtean zehar izaten zen prozesio gehiagorik herrian. Santakruzetakoak, esate baterako, aipatua dugu aurreko zenbakietan. Eta Aste Santuetan ere segi-



Corpus egunean prozesio berezia egiten zen eta gero meza frontoian izaten zen.

zio inportanteak egiten ziren, dudarik gabe. Ostiral Santukoa zen inportanteena. "Jeneralean arropak estrenatzen ziren Ostiral Santuan. Gizonak ateratzen ziren prozesioan eta emakumeak egoten ziren kamio baztarretik hari begira. 'Eta hara!, harek traje berria dauka' edo 'harek txaketa berria' eta horrela ibilitzen ginen", esan du Miguel Amasek hitzordu hark zuen garrantzi erlijiosoaz gain garrantzi soziala ere handia zela azpimarratu nahian.



Loren Navarro

"Corpus egunean plazan egiten zen prozesioa eta bertan, frontoiko paretean, jartzen zuten aldarea. Oso egun polita izaten zen, udalbatza osoa joaten zen, eta prozesioan lore hostoak botatzen ziren...".



Corpus eguneko prozesiorako haurrak prest. Artzaiez jantzita ageri dena Bixente Olano da.

TXARTELAK, BULAK ETA 'CULTO Y CLERO'


Ondo kontrolatuta zuten orduan apaizek zeinek betetzen zituzten hitzordu guztiak eta zenek konfesatzen zituen bekatuak. Elizako legeari jarraituz, jauna hartu behar zen gutxienez urtean behin, eta horretarako izaten zen Pazko eskua deitzen zitzaiona. Hitzordu hori baino lehenago, baina, konfesatu egin behar zen eta txartel bat jaso. Txartela erakusten zuenak bakarrik izaten zuen gero jauna hartzeko eskubidea. "Dena kontrolatuta egoten zen; konfesatzera joaten zinenean ematen zizuten txartel bat; eta orduan ere baziren konfesatzera joatea nahi izaten ez zuten mutikoak-eta, eta haiek lanak izaten zituzten gero jauna hartzeko, apaizari txartela erakutsi behar zitzaion eta", esan du Joxe sakristauak.

Bulak ere baziren. Loren Navarrok kontatu digunez, Aste Santuaren ostean jartzen zituzten bulak salgai erretore etxean. Txartel haiek diruaren truke erosten ziren eta gero trukean izaten zenituen zenbait eskubide. "Haiek erosis gero, izaten ziren



Bixente Olanok

"Bulak erosis gero, izaten ziren indulgentziak", gaineratu du Bixente Olanok, penitentzi barkamenak eta horrelakoak, adibidez, barau ez egitea..."



Adoraziorako hitzorduak ere txartelen bidez jakinarazten ziren.

indulgentziak", gaineratu du Bixente Olanok, penitentzi barkamenak eta horrelakoak. "Bulak izanez gero, adibidez, bijilia egin behar izaten zen bakarrik Garizuman; bestela urteko ostiral guztietan egin behar izaten zen", zehaztu du Mikela Ansak.

"Gero, bulak ere hartzen ziren hildakoen etxeetan", jakinarazi du Joxe sakristauk. Herritar bat hiltzen zenean, haren gorpuaren gainean jartzen ziren txartelak eta orduan ere eskuratzeko modua izaten zen. "Gorpuaren gainean bi edo hiru erreal, pezeta edo dena zelakoa utzi eta hartzen zen bula", gaineratu du Joxek. "Gogoratzen naiz", jarraitu du Maria Esther Arrietak, "nola igoal amak esaten zigun. 'Hara, halako hil da eta joan zaitezte hara bisitan' Joaten ginen eta hartzen genuen bula".



Maria Esther Arrieta

"Gogoratzen naiz nola igoal amak esaten zigun. 'Hara, halako hil da eta joan zaitezte hara bisitan' Joaten ginen eta hartzen genuen bula".

Bazen beste txartel bat 'culto y clero' deitzen zitzaiona. Elizak etxez etxe uzten zuen sobre bat eskatuz apaizei ordaintzeko eskupeko bat. "Ni ere ibili izan naiz etxez etxe hura jasotzen", esan du Loren Navarrok. "Hura izaten zen eliza eta apaizentzako laguntza bat".

BEKATUA ETA KONFESIOA

"Gauza serioa zen bekatua; eta konfesioa... konfesioa uhhh!", esan du Loren Navarrok une hark eragiten zien beldurrak gogora ekarrita. "Dardarka joaten ginen", gaineratu nahi izan du Joxepa Ormaetxeak albotik. "Misioetan-eta", jarraitu du, "apaizak hasten ziren zerua zela, infernua zela, eta gu beti kondenatuta".

Maiatza, Ama Birjinaren hila izaki, "bezperatara joan behar izaten genuen", gehitu du Mikela Ansak, "eta gogoratzen naiz nola igandero



Joxepa Ormaetxea

"Dardarka joaten ginen. Misioetan-eta apaizak hasten ziren zerua zela, infernua zela, eta gu beti kondenatuta".

esaten zuten pulpitotik maiatzean bezperatara joaten ez zen neskatzik ez zela zeruan sartuko. Ai ama!, eta gu beldurtuta".

Linboa bezala, infernua ere kendu zuten eta harrez geroztik bekatuak beste zentzu bat hartu zuen. "Guk dena bekatua genuen eta orain, berriz, dena libre!", esan du Loren Navarrok. "Garai batean, las solteras sikiera libre ginen, todo pureza y hermosura! baina infernua kendu zutenetik katapun!, hori ere ez.... Ze inuxenteak ginen!"

"Nik badut pasadizo bat kontatzeko, ni baino urte batzuk zaharragoak diren bi emakumeri gertatua, bi neskazaharri", esan du Roke Ansak. "Mariaren Alabetan ibili zirenean ezagutu zuten apaiza topatu omen zuten haiek urte asko pasa eta gero. Eta haietako batek aupegira bota omen zion: 'ni ezkondu gabe gelditu nintzen eta zuk dituzu kulpak!'. 'Nik?', apaizak; eta besteak erantzun: 'Bai zuk! mutil batekin dantza egitea bekatua zen, bakarrikan paseatzen ibiltzea bekatua zen, dena bekatua zen... Han gelditu omen zen apaiza ixil-ixilik".

Askok gogoratu dute elizara nola joan behar zuten txukun jantzita, beno, hobe esanda, ondo tapatuta. Izan ere, Don Constantinoren aurrean manga motxean jarriz gero igoal ukatuko baitzizun jauna hartzea... "Apaizekin mendira joateko ere, gonaren azpitik galtzerdi luzeak jarri behar genituen, galtzak edo hankak agerian ematea bekatua zela eta... Ezpainiak pixka bat pintatzea ere bekatua zen zenbait apaizentzat. 'Deformación y mentes sin conciencia' hori zen dena garai hartan", esan du Maria Esther Arrietak.

Klaro, eta horiek denak aitortu egin behar ziren apaizaren aurrean. Gure koadrilakoek gogoratu dutenez,



Mikela Ansa

"Gogoratzen naiz nola igandero esaten zuten pulpitotik maiatzean bezperatara joaten ez zen neskatzik ez zela zeruan sartuko. Ai ama!, eta gu beldurtuta".

ilada luzeak osatzen ziren konfesionarioan, batez ere maiatzean (bezperatara konfesatuta joan behar izaten baitzen). Eta benetan egiak konfesatzen zenituzten? galdetu diegu, eta denek erantzun dute aho batez: "keba!". "Izan ere", zehaztu du Miguel Amasek, "apaiz batzuk baziren kategoria zutenak baino beste batzuek ez, eta haren aurrean ezer esateak beldurra ematen zigun".

Trantze txar hura nolakoa izaten zen Miren Zarragak kontatu digu: "Konfesatzera joan eta igoal esaten zenuen: 'he robado manzanas'. Eta apaizak: '¿Cúantas manzanas has robado? Igoal izan ziren zortzi edo dozena, baina guk beldurrez: 'cuatro'. 'Más ya serían' apaziak, eta guk: 'no, no; cuatro'. Beti horrela. Musuekin ere berdin: 'Zenbat musu eman dizkizu senargaiak?', ba igoal zortzi izan ziren eta guk bakarra izan zela esan".

Eta geroko penitentzia, jakina, bekatuaren larritasunaren arabera izaten zen. Sagar bat lapurtu bazenuen Agur Maria bat errezatu eta kitto; musu asko jaso bazenuen, ba dozena Agur Maria eta beste hainbat kredo errezatu behar igoal. Izan ere, bekatuak arinetik hasi eta mortaletaraino sailkatzen baiziren. Biraoak esa-



Konfesionarioa. Garai batean sekulako ilada luzeak egiten ziren haren atzean.

tea zen bekatuen artean arinetakoa, eta haragikeriak egitea zen sailkapeneko larriena. "Hori dena, gainera, egin zitekeen, 'de pensamiento', 'de palabra' edo 'de obra'".

"Baina alde handia zegoen, baita ere, konfesoreen artean", esan du Miguel Amasek. "Hara: Don Rosendo erretorea jartzen zen konfesionarioan bostak eta erdietarako igoal. Arratsaldean, berriz, hiruretan jartzen zen, eta siesta egiten zuen konfesionarioan. Joaten zinen, 'Ave Maria purísima' esan eta berdín zen atzetik zer kontatzen zenuen..., hura lo seko!"



Mariaren Alabak eta Luistarrei ematen zitzaizkien dominak.



Miren Zarraga

"Konfesatzera joan eta igoal esaten zenuen: 'he robado manzanas'. Eta apaizak: '¿Cúantas manzanas has robado?. Igoal izan ziren zortzi edo dozena, baina guk beldurrez: 'cuatro'. 'Más ya serían' apaziak, eta guk: 'no, no; cuatro'. Beti horrela".

LUISTARRAK ETA MARIAREN ALABAK

Orain arte kontatutakoak elizan barnean egiten zirenei buruzko kontakizunak izan ziren. Elizatik kanpora, baina, erlijioak ere garrantzia handia zuen. Luistarren eta Mariaren Alaben kongregazioak dira horren lekuko. Herriko gazte ia-ia denak ziren kide.



Roke Ansa

"Luistarrak komunio handia egin eta ezkondu arteko gazteek osatzen zuten. Kongregazioa osatzen zuten mutilek ikur berezi bat izaten zuten, medaila antzeko bat zinta zuri batetik zintzilik".

"Luistarrak", hasi da kontutan Roke Ansa, "komunio handia egin eta ezkondu arteko gazteek osatzen zuten. Kongregazioa osatzen zuten mutilek ikur berezi bat izaten zuten, medaila antzeko bat zinta zuri batetik zintzilik".

Luistarren kongregazio kidea Mariaren Alabek osatzen zuten emakumeen artean. Haiak ere izaten zuten antzeko ikur bat, kolore urdinekoa ordea.

Luistarren eta Mariaren Alabek, hilean behin meza berezia izaten



Luistarren koadrila handia Goikoplazan.

zuten, eta hara joateko obligazioaz aparte ez zuten ezer askorik egiten. "Gainerantzekoan beste askorik ez genuen egiten. Hilean behin izaten genuen meza goizeko zazpiretan; maiatzean bezperetara joaten ginen... eta horrela", esan du Loren Navarrok.

Nolanahi ere, kongregazioko kide izateak garrantzia handia zuen. Miren Zarragak gogoratu du nola dantza egitera Hernanira joaten ziren -han Andoainen baino sei pieza gehiago izaten zirelako- eta apaizak jakin zuen hura. "Dantza bakarrik egiten genuen, baina apaizak ikusten ez gintuenez esan zigun Mariaren Alaben zinta

kendu egingo zigula. Beldurra sartze-ko baino ez zen, baina ikus ezazu..."



Loren Navarro

"Mariaren Alabetan gainerantzekoan beste askorik ez genuen egiten. Hilean behin izaten genuen meza goizeko zazpiretan; maiatzean bezperetara joaten ginen... eta horrela"

MUGIMENDU APOSTOLIKOAK

Orain arte kontatutako guztiak ezkorretik edo negatibotik asko du. Horiek denak ezkutatu nahi gabe, baina, gure solaskideek gogoratu dute erlijioak eta orduko sinesmenak gauza aberasgarriak bazituela. Horren adibide jarri ditu Joxemari Olazabalek orduko mugimendu apostolikoak, eta haiak nola sortu ziren eta zer ziren gogoratu du xehetasunez:

"Zaila da gaurko metroarekin orain 60-70 urteko gertaerak neurtzea; oso zaila. Batzuek esango dute engainatuta bizi ginela, baina ez ginen engainatuta bizi; denek genuen kultura bera, hura zen naturala. Gaurko metroarekin neurtuta gauza negatibo asko zeuzkan mundu harek, baina esan nahi nuke positiboak ere

asko zeuzkala. Eta hori ondo erakusten dute garai hartan herrian sortu ziren mugimenduek: mugimendu apostolikoak. Nik bi ezagutu ditut: bat langile artekoa eta bestea baserritar artekoa. Langileen artean ziren, gaztetan, JOC (Juventudes Obreras Catolicas) eta ezkondata gero OAC. Nekazal inguruan, berriz, zen Baserri Gaztedi. Orduan, egia da, gutxiengo bat ginen, baina Gipuzkoa guztian zabaldu ziren. Horren berezitasuna izan zen, ez bakarrik sinesmena, otoitza eta sakramentuak bultzatzea, baizik eta hartzea konpromiso serio bat herriarekiko. Mugimendu horietan ibili ginen guztiak ginen kontzejalako, sindikalistak edota auzo elkarteetakoak. Konprometituta geunden, eta konpro-

mesu hori bete egiten genuen. Adibidez, hilean behin, igandeetan, joaten ginen Andazarrateko ospitalera gaisoak bisitatzen. Beraz, negatiboa bai baina positiboa ere. Kooperatibak, adibidez, JOCetik sortu ziren".




Joxemari Olazabal

"Gauza negatibo asko zeuzkan mundu harek, baina esan nahi nuke positiboak ere asko zeuzkala. Eta hori ondo erakusten du garai hartan herrian sortu ziren mugimenduek: mugimendu apostolikoak".

... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Lanbide zaharrak ekarriko ditugu gogora iraileko azken igandean banatuko den aldizkarian. Azken urte hauetan lanbide berri asko eta asko sortu dira bazterretan: badira ordenagailu programatzaileak, telekomunikaziotan adituak... baina horiek denen arrastorik ez zuten orain mendi erdi dela. Aldiz, baziren inguruan lanbide ugari gaur egun desagertuak eta ahaztuzeko bidean daudenak. Bada ez dugu ahaztu daitezela nahi eta horregaitik bilduko ditugu zenbaitzuri buruzko xehetasunak orriotan. Arrain saltzaileak, ikazkinak, zabor biltzaileak, aguazilak, tranbiako kobradoreak eta karril garbitzaileak gogoratuko ditugu, besteak beste.



Abuztuan atsedenaldia hartuko dugu

Esku artean duzun zenbaki hau da udako oporren aurreko azkena. Baina ez zaitezte arduratu gure jarraitzaile fin horiek, irailean berriz ere itzuliko baizira. Abuztuan atsedenaldira ez dugu hartuko eta indar berrituta etorriko gara gero oporretatik bueltan. Ondo izan birtartean!



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Eva Garcia. **Argazkiak:** Udal artxiboa, eta Baxi Ubeda. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.